

% manger
% Sortir avec ses amis
% Écouter de la musique
% Faire la fête

72% Naviguer sur internet
59% Re...
41% M...
3%




EXPERTIA

Ikasleak, ikasle ohiak eta familiak, bat eginik!



Zer da Expertia programa?

Lauaxetako Expertise Marketplace bat da, hau da, aditu ezberdinek, haien esperientzia eta bizipen propioak abiatuta, ikasleei beraien ezagutzak eskaintzen dizkieten topagunea.



Zertan datza?

Guraso eta ikasle ohien ezagutza teknikoak eta esperientzia profesionalak aprobetxatuz, Ikastolako hezkuntza proiektuaren barruan "master class" txikiak ematea, horrela, ikasleen ikasketa prozesua esanguratsuagoa eta aberatsagoa eginez.

**Izena eman
nahi dut**

Zeintzuk dira helburuak?

Ikasleen konpetentziak hobetzea, horretarako gurasoen eta ikasle ohien ezagutza tekniko eta profesionaletaz baliatuz

Ikasleek, esparru profesionalari buruz duten ikuspegia, esperientzia pertsonalen bitartez aberastea: lanbide motak, konpetentzia motak, ...

Proiektuan parte hartu nahi dut, baina ez dakit nola edo zertan...

Egunerokoan egiten duzun lan profesionala edo talenturen batez baliatuz, 40-45 minututako saio bat emango zenuke?

Izena eman
nahi dut

Adibideak:

Haur Hezkuntzan ipuin bat antzeztuko zenieke? edo txontxongiloen espektakulu txiki bat? edota kimikako esperimentu bat?

Lehen Hezkuntzan, zergatik da garrantzitsua gorputzaren ezagutza? zertan lagundu ahal dit adimen artifizialaren edo robotikaren ezagutzak? agian paraleloak, meridioak eta koordenatuak zertarako erabiltzen diren azalduko zenuke? baliteke idazleren bati buruzko monografiko bat egitea? edo kirola eta osasunaren arteko erlazioa azaldu?

Eta DBH edo Batxilergoan, globalizazioa zer den eta gure bizitzan nola eragiten duen azalduko zenuke? fisikari buruzko zerbait agian? marketinga, eta kriptotxanponak? eta kotxe elektrikoari buruzko zerbait? edo agian enpresa batek bere kudeaketa logistikoa nola egiten duen azalduko zenuke? zein da komunikazioaren garrantzia? zer eragin du arteak edo literaturak bizi garen munduan? Adibide gehiago ikusi nahi? [Bota begirada bat.](#)



Input guztiak dira ongi etorriak. Gakoa ez da nire hitzaldiak balio duen ala ez. Gakoa, nire hitzaldia noiz (ikasturteko zein momentutan) eta nori (zein adin) egokitzen zaion ondo definitzea da.

Izena eman nahi dut. Nola egin behar dut parte hartzeko?

1

Izena eman
formularioko
datuak betez

Izena eman
nahi dut

2

Datu basean
izen eman
duten
pertsonek
guztien
analisiak
egingo da
Ikastolan

3

Ikastolatik
arduradun/
irakasle
bat jarriko
da zurekin
kontaktuan
zure master
class-aren
nondik norakoak
zehazteko

4

Ikastolan zure
saioa egin
eta **Lauaxeta**
EXPERTIA
laguna
bihurtuko zara



EXPERTIA programan izena eman dut, baina ikastolatik ez du inork nirekin kontaktatu. Zer egin behar dut?

Lasai. Agian ikasturte honetan ez dugu zurekin kontaktatuko baina bete duzun informazioa etorkizunerako gordeko dugu.

Zein hizkuntzatan izan behar da?

Aukeran euskaraz. Programa honen beste helburuetariko bat esparru profesionalean ere euskara erabili daitekeela ikustaraztea da. Ezin bada, gazteleraz eta ingelesez egin daiteke. Frantsesez edo alemanez ere bai, baina askoz ere ikasle gutxiagotara helduko ginateke.

Orain ez banaiz apuntatzen, etorkizunean izena eman dezaket?

Orain izena ematen baduzu hobeto. Asmoa zera da: ikasturte bakoitzaren hasieran, sortzen den Expertise guztiaren datu basea osatzen joatea. Dena den, Expertia programa honen 1. edizio honetan, guraso eta ikasle ohi kopuru handi batekin hastea garrantzitsua izango da. Beraz izena ematera animatu.

Nire seme alabaren gelan emango dut nire saioa?

Ez dauka zertan. Ideia ez da, aita/ama bakoitzak bere seme edo alabaren gelan egitea, baizik eta ezagutzak ikasleen eskura jartzea. Dena den agian, zure seme edo alabaren gelan egitea ere suertatu daiteke.



Nire azalpenean soporteren bat erabili dezaket?

Zuk nahi duzuna. Gela guztietan proiektorea dago, internet konexioa izango duzu, etab., baina ez da derrigorrez pantaila bidezko aurkezpen bat izan behar.

Tailer formatoa egin nahi baduzu, eskulanak egin edo modu kreatiboan zure saioa gidatu, ez dago inolako mugarik.

Helburua eta komunikazio estiloa zurea izan behar da.



Izena eman
nahi dut





LAUAXETA
IKASTOLA

lauaxeta.eus

**Izena eman
nahi dut**